

# Romoko Auzoz Auzo itzultze-bileraren akta

Lekua: Gobelaurre Boluntariorza Zentroa

Eguna: osteguna, urriak 30

Ordua: 18.00

## 1. Ongietorria

Imanol Landa Getxoko alkateak ongietorria egin eta eskerrak eman dizkie Romoko Auzoz Auzo itzultze-bilerara joandako guztiei.

## 2. Metodologiaren azalpena

Herritarren Parte-hartzean aditua den Iritziak Batuz enpresako Jonatan Morenok itzultze-bileraren esparruan aurreikusitako dinamika eta urratsak azaldu ditu: parte-hartze prozesuaren emaitzen aurkezpena, Udalaren deskargua, galderak egiteko txartelak banatzea, esku-hartzea errazteko arauak, bertaratutako herritarrek galderak egiteko txanda eta bileraren amaiera.

## 3. Parte-hartze prozesuaren emaitzen aurkezpena

Antxon Gallegok, Iritziak Batuz enpresakoak, Romo auzoan egindako parte-hartze prozesuaren emaitzak aurkeztu ditu. Ekimenaren helburua aipatu du, proposamenak zein eremutan jaso diren (Errekagane kalea, La Avanzada errepidea, Gobelaurre kalea eta Kresaltzu kalea), proposamen horiek biltzeko zein bide erabili diren (postontziak, parte-hartze ataria eta karpa presentzialak), eta, azkenik, guztira zenbat ekarpen egin ziren azaldu du: 652 ekarpen 249 triptikotan eta web atariaren bidez 20 bat iradokizun.

Kanal / bide ezberdinen bitartez adierazitako gaiak lan-eremu edo arlo ezberdinetan sailkatu dira (Trafikoa, errepideak, espaloiak eta aparkalekua; parkeak, pasealekuak, plazak eta lorategiak; herritarren segurtasuna; garbiketa-lanak; merkataritza eta ostalaritza; eta kultura eta kirola). Era berean, Romoko Auzoz Auzo emaitzaren aurkezpena izenarekin, Udalaren web orrialdean aurki daitekeen PDF dokumentuan desglosatuta ageri dira.

## 4. Imanol Landak, Getxoko Alkateak, jasotako proposamenei emandako erantzunak

Auzoz Auzo ekimena duela urte batzuk hasi ginen garatzen udalerrian, eta horren helburua da Udala, gobernu-taldea eta alkatea gerturatzea Getxoko bizilagunengana. Batzuetan, bulegoan gehiegi egon behar izaten dugu, eta bileraz betetako agenda izaten dugu; hori dela-eta, herritarrengandik nahikoa urruti gaudela iruditzen zaigu. Parte-hartze sektorialerako sare zabala dugu lan-taldeekin, eta web orrian prestatutako programa, erabat irekita (Abisuak, Kexak eta Iradokizunak (AKI)).

Auzoetara hurbildu eta bizilagunak zuzenean entzutearen aldeko apustua egiten dugu; horretarako, auzo desberdinetan ekimen ezberdinak jarri ditugu abian Auzoz Auzo

Programaren barnean. Romon hirugarren aldiz garatu dugu programa. Programaren hirugarren edizio horri dagokionean, 652 proposamen jaso ditugu, denak ere zentzuzkoak, gehienak auzoaren eguneroko mantentzeari buruzkoak (Garbiketa, edukiontziak, segurtasuna, parke eta lorategien mantentze-lanak, e.a.) eta Romo Kultur Etxea eta Errekaganeko pabiloiak bezalako aipamen zehatzak.

Ekimenaren helburua da entzutea, neurriak hartu eta Udalaren kudeaketa bideratzearen. Lehen argazkia esku artean dugu, eta, behin aztertuta, jendaurrean aurkeztu nahi ditugu azaldutako gai batzuei erantzuteko hartu ditugun hiru proposamen:

### **1. Proposamena:**

Herritarrentzat bizikidetzaz-espazioak irekitzea espaloi estuko eta sarrera zaileko zona batean; hots, Kresaltzu kalearen zatian, Santa Eugenia kaletik Aurrezki Kutxa kalera bitarte. Espaloi estuak dituen zatia da, bi albotan aparkatzeko lekuekin eta erdian bidea duela. Plataforma bakarra jarriko da, espaloiak zabaldu, ibilgailuak kendu eta argi berriak jarriko dira, tarte hori atseginagoa, seguruagoa eta mundu osoarentzat igarotzeko modukoa izan dadin. Kale irekiagoa izango da, gozoagoa, argitsuagoa eta erraz igarotzekoa Aurrezki Kutxa kaletik oinezkoen zonara iritsi bitarteko eredia jarraitze aldera.

### **2. Proposamena:**

Estalkia jartzea da asmoa Santa Eugenia kaleko kulunken zonan (Xake plazaren alboan), inguru horretako haurrek gozatzeko aukera izan dezaten klimatologiari laguntzen ez duenean.

### **3. Proposamena:**

Txabarri Zuazo Parkeko jolas-eremuko zona nagusiak osatzen dituzten panelen ordeztasuna jartzea soinu-inpaktua arintzearen. Bolatokiaren zonan ping-pong mahaiak jarriko dira.

Hiru esku-hartze horietarako 432.000 euroko inbertsioa egin behar da.

### **Beste proposamen batzuk:**

Zaborrak biltzeko kontratu berria sinatu da, eta horrekin hobekuntza garrantzitsuak nabaritu dira garbiketa eta zaborrak biltzeko zerbitzuetan. Garbiketa hobetuko da, eta igandera arte luzatuko da. Makinaria modernoagoak jarriko dira eta egungo edukiontzien ordeztasuna edukiontzi berriak eskuratuko dira. Gainera, zona jakin batzuetan (Gobelondo kalea eta Kresaltzu kalea) edukiontziak lur azpian sartuko dira, jende asko igarotzen den zati horietan ikuspen-inpaktua saihesteko asmoarekin. Halaber, jardueraren bidez sortutako zarata gutxituko da, aurrean adierazitako hobekuntza horiei esker.

Romo auzoa hobetzearen aldeko apustua egiten duela urte batzuk hasi ginen. Esku-hartze garrantzitsuak egin dira; hala nola, Errekagane eta Luis Lopez Osas kaleak berritzea; espaloiak handitzea Ezequiel Aguirre, Kalamua, Aurrezki Kutxa eta Gobelondo kaleetan; Areetako parkea (ibaiaren obrak amaitzean jarraituko da) eta Txabarri Zuazo parkea osorik berritzea; Kresaltzu kalean saneamendua hobetzea; Gobelondo ibaiaren obra hidraulikoa (Golf Zaharraren zonan uholde-arriskuak

neutralizatzeaz gain, Areeta Parkeari eta bidegorriari jarraipena emateko aukera emango du, Makalen etorbidearekin zuzenean konektatu ahal izatearekin batera).

Udalak konpromisoa hartu du Errekaganeko pabiloiak eskuratzeko. Udalaren plangintzak pabiloiak Udalak eskuratzeko eskatzen du, eta gure helburua da ekipamendu gisa berreskuratzea udalerriko bizilagunentzat. Gazteen talde jakin batzuekin akordioa ixteko lanetan ari gara, eta esparru-akordio bat egin nahi dugu espazio horiek erabiltzeko baldintzak definitzeko; era berean, inguruko bizilagunekin bizikidetza-esparrua jorratu nahi dugu, ordutegiak, garatu beharreko jarduerak e.a. erabakitzeko. Azkenik, Udalarekin berarekin harremanetan jartzeko esparrua landu nahi dugu. Akordio horri esker, eraikina estetikoki goitik behera birgaituko da, estetika, segurtasun eta higiene aldetik egokitua izan dadin.

Pabiloietan gazte horiek erabiltzeko espazio bat izango da eta beste espazio zabalagoa beste talde batzuentzat edo Udalaren beste zerbitzu batzuetarako; beraz, bestelako jarduerak egin ahal izango dira.

## 5. Galderak egiteko txanda

**Errekaganeko azken zatian, Xake plazara iritsi baino lehen, harri-zola zatiek duten egoera. Ez dira erosoak, arriskutsuak dira erortzeko arriskua izateagatik eta leku zehatz batzuetan zakartuta daude. Aldatzerik badago?**

Oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zona mistoetan egin diren lan berrietan zementu inprimatua erabili da. Errekagane kalean, irisgarritasuna hobetzeko etorkizunean egin beharreko lanetarako oharra hartuta geratu da.

**Errekaganeko pabiloiak erosteari buruzko informazio-eskaera. Zenbat metro karratuko azalera du? Zenbat ordainduko da metro karratu bakoitzeko? Duela gutxi arte okupatuta izandako etxea horren barruan sartzen da? Pabiloiak berritu behar dira?**

Udalak erabiltzen zituen pabiloien zati bat eraitsi egin zen, eta geratzen direnak pribatuak dira. 2001az geroztik onartutako hirigintza-araudiaren arabera, espazio horrek Udalaren titulartasuna izan behar du; hortaz, Udalak erosi behar ditu. Uraren Euskal Agentziak, URAk, bi aukera aurkeztu zituen Uholdeen Batzorde Bereziaren aurrean; Batzorde horretan alderdi politiko guztiek dute ordezkaritza eta Neguri, Salsidu eta abarren uholde-arloan parte hartzen duten AAWk. Bi aukera: 1. Ibaiaren obrak direla-eta, pabiloiak bota egingo dira. 2. Egikaritze horrekin ez dira botako.

Bi aukerak baliozkoak ziren obra egiterako garaian. Batzordean, EAJ-PNV eta BILDUren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin, erabaki zuten pabiloiak ez eraitea; bizilagunen ordezkariak ere irizpide bat aurkeztu zuten ildo horretan. Gobernu gisa, lehenik eta behin pabiloiak jabetzan hartzea nahi dugu. Kasu horretan, izaera dela-eta, prezioa erabakita dago. Ez dago negoziatorik, ratio batzuk baizik, pabiloien jabeen eskubide batzuk, okupatutako espazioaren, lurzoru-motaren, kokatutako eremuaren eta abarren arabera zenbatzen direnak. Negoziatu daiteke arintze aldera, baina prezioa tasatuta aurkitzen da.

Ezin dut esan zehazki une honetan zein izango den metro karratu bakoitzeko prezioa, baina erosketa publikoa izango da. Iraileko azken Osoko Bilkuran, eragiketa horretarako milioi eurotik gorako partida erreserbatu da.

Plangintzak erostea eskatzen du. Parametro batzuek kostua finkatzen dute, eta pabiloi horiek okupatzen zituzten taldeekin negoziatioetan ari gara, haiekin lan egite aldera, udalerriko beste elkarteekin eta taldeekin egiten dugun moduan. Gure ustez, beste garai batzuetan gaude orain, eta, Jainkoari eskerrak, indarkeria iraganeko zerbait izatera pasa da duela 3 urtetik hona; beraz, beste klabe batzuetan lan egin dezakegu, Europako beste hiri batzuetan eta gure ingurunean (Oñati, e.a.) egiten duten moduan. Gazte-taldeak autokudeaketa lantzen dute, Udalekin hartutako akordioan eta lankidetzaren bidez. Gure apustua da (eta jakin badakigu apustu ausarta dela) akordio-eran lan egitea talde horiekin.

Akordioak lehen adierazpidea izan zuen: ibaiaren obra egiten den bitartean, etxe merkeetan espazio bat jarriko zaie, baina baldintza, ordutegi eta baimendutako eta baimendu gabeko erabilera jakin batzuekin.

Lehen urrats horretan erabakia errespetatzen ez bada, zaila izango da akordio hori pabiloien erabilera eramatea. Gaur arte, akordioa betetzen ari da. Dokumentu bat lantzen ari gara, eta publiko egingo dugu, pabiloi horiek zein baldintzatan erabili daitezkeen definitzeko. Baldintza horiek inguruneko bizilagunekiko bizikidetzaren esparrua definitu beharko dute. Bizilagunekin hitz egin dugu, eta Golf zaharreko jabeekideen erkidegoetako lehendakariekin bildu gara, eta badakigu beldur direla eta kritikatzeko dutela pabiloi horiei lehen eman zaien erabilera. Akordioaren bidez, guztien artean beharrezkoa den bizikidetzaren eta errespetuaren bermatu nahi ditugu (ordutegia, egin daitezkeen jarduerak eta egin ezin daitezkeenak, e.a.). Akordioa Udalak gainbegiratuko du, bizilagunen eskubideak eta ingurunean bizi diren pertsonak errespetatzeko betebeharra bermatzearen.

Lokalak ezingo dituzte talde horiek soilik erabili. Udalaren titulartasun publikoko espazioa izatean, jarduera gerturatzen den edonorentzat irekia izango da. Ezin da diskriminaziorik gertatu edozein arrazoi medio. Pabiloi guztiak ez dituzte talde horiek erabiliko. Zati bat bere garaian definituko diren beste talde batzuentzat izango da.

Pabiloi horiek ekipamendu publiko moduan berreskuratzeko aukera da. Ez dira orain dauden bezala egongo. Jendeak esaten digu eta jasotako iradokizunetan ere horrela agertzen da, pabiloiak oso gaizki daudela, eta ez datozela bat zona osoko testuinguru estetikoarekin; hori dela-eta, pabiloiak birgaitu eta testuinguru orokorrera egokitze lanak egingo dira.

Horri esker, jarraipena eman ahal izango zaio Areetako pasealekuari, zati zabal batekin Golf Zaharerraino edota Makalen etorbidera bitarteko konexioarekin; halaber, bidegorria bukaera arte egin ahal izango da.

Estetikoki zona egokituta geratuko da. Bi aldeen konpromisoa da, eta klabe berriak lan egiteko arriskua onartzen dugu, baina ilusio handia dugu, talde horiek beren jarduerak gara baitezakete bizilagunak errespetatuta eta Udalarekin hitzartutakoari jarraiki. Alkate gisa egiten dudana apustua da. Beharbada errazena eraistea izango zen, baina guk eredu horren aldeko apustua egin dugu. Orain arte, talde horiekiko harremana eta lana positiboa izaten ari da, akordioak errespetatzen ari baitira. Etorkizunera begira, apustu

horren alde lan egiten jarraituko dugu, eta ikusiko dugu nola garatzen den. Guztiok nahi dugu formula horrek funtzionatzea. Desjabetzea egin daiteke, eta prozesua hirigintza-plangintzan babesten da.

### **Nagusien Etxea eraikina: Posible da eraikin horretan adinekoentzako egoitza jartzea gertutasun handiagoa izate aldera?**

Ulertzen dut zure hausnarketaren logika. Adinekoen kopurua gero eta handiagoa da bizi-itzaropena zorionez luzeagoa delako. Balioa eman nahi diet kontu horretan Getxoko Udalak dituen baliabideei. Gure egoitzak gaitasun eta tamaina garrantzitsuak ditu, eta Udalak kudeatzen du, Udaleko langileek egiten dute lan, oso ondo baloratua dago, eta Udal Aurrekontuekin ordaintzen da, eskumena Foru Aldundiak izan arren. Getxoko Udalak atsegin handiz egiten duen plus bat da. Udalerrri gutxik egiten dute ahalegin hori, tartean guk, gure bizilagunen ongizaterako delako. Urteko aurrekontua 2,5 milioi eurokoa izaten da.

Bere kasa baliatzen diren adineko pertsonak artatzeko betebeharra dugunez, babespeko 52 pisu ditugu. Bizkaian eta Euskadin babespeko pisuen eskaintzarik handiena duen udalerrria edo udalerrietako bat gara. Hori guztia dela-eta, gobernu-talde bezala, gure apustua da Nagusien Etxeak orain okupatzen duen espazioa Babes Ofizialeko etxebizitzak eta babespeko pisuak egiteko erabiltzea. Gurutze Gorriaren zerbitzuari esker, autobus batek Eguneko Zentrora eraman eta handik ekartzen ditu hala eskatzen duten pertsonak. Ditugun baliabideak ahalik eta gehien gehitzeko modua da.

### **Alokairuko pisuen eskaintza prezio onean gehitzeko aukerarik ba al dago?**

Alokairuko etxebizitzaren aldeko apustua egiteko beharra egokitzat jotzen dugu. Getxo aitzindaria izan zen jabetzan saltzen ez ziren BOEak, baizik eta erabilera-eskubidearekin, eraikitzen, 50 urtera Udalari itzultzeko. Parke publikoa ez da agortezina. Ezin dugu inolako mugarik gabe eta modu ez iraunkorrean eraikitzen eta okupatzen jarraitu.

Alokairu sozialeko 145 etxebizitzako lehenengo etxebizitza-parkea eraikiko dugu. Alangon egingo dira, anbulatorioaren aurrean eta, gehienez, 5 urteko iraupena izango dute, txandakatuz joan daitezten; eta etxebizitza horietatik %60ko kupoa 30 urtetik beherako gazteei zuzenduta egongo da.

Alokairua baliabide publikoen maximizazio-formula gisa ari da gailentzen eta, baita, nolabaiteko txandatzea ahalbidetzeko eta pisu baten erosketari lotetsirik egon gabe bizitzea ahalbidetuko digun formula berri gisa sartzeko ere.

### **Edukiontzi marroia jartzekoa al da? Hainbat udalerritan, besteak beste, Larrabetzu, Igorre edo Basaurin oso esperientzia interesgarriak jarri dira**

**abian. Jendeak modu hedagarriagoan egitea eta kanpaina bidez... azalduz egitea eskatzen du.**

Garbiketa eta zabor-bilketa kontratu berriak, pleguak prestatzen bi urte luza igaro ondoren, non, Euskadin, Estatuan eta Europan erreferentziak bilatu diren, udalerriko auzo guztietan bosgarren edukiontzia ezarpena jasotzen du eta, horretaz gain, formula hori sustatzea aurreikusten du zaborren tasak jasango duen aldaketaren bidez; horrela, konpost-programa horretara atxikitzen diren Getxoko bizilagun guztiei zaborren tasan murrizketa egingo zaie.

**Nire kezka Amalloa kalean ordu jakin batzuetan jasaten dugun zaratarekin dago lotuta. Ez da normala ordu jakin batzuetan jendeak tragoak kalean hartu ahal izatea terraza bat bailitzan. Oso kale estuak dira eta taberna aurretan, zeintzuek ixteko ordua goizeko lauretan duten, bankuak jarri dira. Terrazek kaleak okupatzen dituzte, baina ordutegiak finkatuta dituzte eta dagozkien zergak ordaintzen dituzte. Kasu honetan, terraza gisa funtzionatzen dute, baina, ordutegirik gabe eta zergarik ordaindu gabe. Eusko Jaurlaritzaren arau bat bada ordu jakin batetik aurrera kalean edatea debekatzen duena eta horien kontrola Udalei eskuordetzen diena.**

Zaila da gai horri erantzun bat ematea. Inolako zalantzarik gabe, Getxoko auzoek bizitza handiago dute, neurri batean, ostalaritza-establezimenduei esker. Horrek alderdi on batzuk ditu auzoetako bizimoduari eta segurtasunari dagokionez, baina, egia da ere, atsedeen hartzeko eskubidea guztiok bermatuta eduki beharko genukeela. Bereziki ostiraletan eta jaiegunetan jasaten den arazoa da. Gai hori Hirigintza-Arloarekin eta Udaltzaingoarekin ikertzeko konpromisoa hartzen dut.

**Duela egun batzuk, Errekagane kalearen, Aurrezki Kutxa kalearen eta Xake Plazaren bidegunean bankuak pintatu dira zona horrek jasaten duen utzikeria-egoera salatzeko. Errekagane kaleko galtzada-harrizko zoladura benetan kaskarra da, irregularra da eta non-nahi galtzada-harriak falta dira ; edonork hanka sartu eta sekulako kaltea jasan dezake. Kutxatila batzuen tapak behera eginda daude eta edonoren eroriak eragin ditzakete (batez ere adineko pertsonenak). Hori guztia Xake Plazaren proiektuak kale egin zuelako. Jendea galtzada-harrien zoldurari ihes egiten saiatzen da, irrist egin eta erori egiten da (bustita dagoenean) laua den zatian.**

Oharrak hartu ditut eta zona horretan jarduerak egiten jarraituko dela diotsuet. Aurrekontu-lehentasan kontua da. Egoera hori bera errepikatzen da bertaratu garen hainbat auzotan. Romoko bizilagunarentzat bere errealitatea bere auzoan bizi duena eta, hausnarketa hori muturreraino eramanda, guztiok geure auzoetan nahiko genituzke zerbitzu eta ekipamendu guztiak (Eguneko zentroa, anbulatorioa, igerilekua, polikiroldegia eta abar). Bestalde, logikoa ere bada. Gasteizek gizarte-etxe sare eredugarria du, baina, hori bai, orain sekulako arazo ekonomikoak ditu haiek mantentzen.

Gure apustua garraiobide eta komunikabide nagusirantz (metroa), zeinak, egitura komunikatzen duen eta gure udalerrira antolatzen duen, irisgarritasun-plan bat garatzea da. Horretarako, arrapala mekanikoak (Bidezabal, Salsidu) eta igogailuak (Alango, Ereaga, Billamonte, Aiboa) gaitu dira, metrora erraz iristeko.

Algortan bada igerilekura Gobelara joaten den jendea. Algorta erdigunean bizita erosoagoa gertatuko zaie metroa hartu eta Gobelara joatea, Faduran jaisteo baino.

Antzerki, abesbatza, pop-rock musika-kontzertura eta joan nahi duen Romoko bizilaguna zergatik ez da bada metroa Areetan hartu eta Algortako Getxo Antzokira joango? Auzo bakoitzean antzoki bat jartzea ezinezkoa da. Auzoen artean oreka bilatu behar da, zerbitzu irisgarrien baina, era berean, iraunkorra izango den Getxo bat eraikitzea ahalbidetuko diguna. Hor daude orekak, baina, baita, zailtasuna ere, aurrekontua dagoena baitago eta zerbitzu horiek guztiak mantendu behar baitira.

Egoitzarako gustu osoz ordaintzen duguna ezin dugu erantzutera behartuta gauden beste zerbitzuetara bideratu. Eguneko zentroa ere ez da Udalaren eskuduntza, baina badugu, Aldundiarekin akordio batera iritsi baikinen etxean bertan jaso eta Eguneko Zentrora eramango gaituen zerbitzua auzotar guztientzako erabilgarri jartzeko. Getxotar guztientzako zerbitzuak nahi ditugu, baina zerbitzu iraunkorrak. Hori da xedea eta hortik hori gauzatzeko zailtasuna ere. Zerbitzu publikoen kudeaketaren arduradun gisa, baliabideak maximizatzea defendatzen dut.

Romoko Kultur Etxeak filosofia horri berari erantzuten dio. Toki bakar batean kokatzea orain arte Areetako Merkaturako Kultur Etxean, Nagusien Etxea eta Santa Eugeniako Eskoletan zegoena, Euskaltegia, Nagusien Etxea eta Kultur Etxearen hedapen osoa, liburutegia, bebeteka, haurrentzako liburutegia, gaztelekua eta dantza-aretoarekin. Toki bakar batean kokatzen baduzu, langilerian eta energian (eraikin modernoa eta eraginkorra izatean) aurrezten duzu eta gune horretan mugitzen diren gizarte-eragile guztien arteko harremana dinamizatzen duzu.

**Romo Auzokideen Elkartetik proposamen bat prestatu dugu Romoko Nagusien Etxea eta Euskaltegia eraikinentzako, zeina, auzoari ere aurkeztu diogun. Gure proposamena eraikin enblematiko horiek Romo auzoan kontserbatzea da, horien gabetzea auzoarentzako nortasun-galera bailitzateke; beraz, mantendu, zaindu eta hobetzeko guneak dira. Auzoan hainbat gabezia ditugu eta eraikin horiek gabezia horiek estal ditzaketela ulertzen dugu eta horiek adineko pertsonengana bideratu, etxe tutelatu gisa, Nagusien Etxea auzoan ez dugun eguneko zentro publiko gisa. Ez zait batere egokia iruditzen kultur jardueretarako, geriatrikoetarako nahitaez auzo desberdinetara lekualdatu beharrak eragiten duen mugikortasuna. Egokiena auzo bakoitzaren beharrak aseko dituen hurbileko zerbitzu batzuk edukitzea dela deritzot. Egungo Nagusien Etxean pertsona multzo bat bizi da eta kezkatu egiten ditu eraikin batetik besterako trantsizioa nola izango den pentsatzeak. Eraikin horiek eraitsiz gero, nora joango da jende hori? Zer gertatuko zaie? Eraikin horretan bi etxe tutelatu itxita daudela esan digute. Zergatika jakin nahiko genuke: baldintza egokietan ez al dauden, demandarik ez dagoen, eta abar.**

Gure proposamena Nagusien Etxean pisu tutelatuak gaitzea da. Etxe tutelatuak behar ditugu. Trantsizioa (egiten denean) trantsizio egokia izango da, nola ez, pertsona horien egoera errespetatuz, beti egin izan den moduan. Gai hori lantzen ari dira, trantsizioa nola egin ikusteko. Ez da gauetik egunera egingo.

Romoko Kultur Etxea, ibaia egokitzeko obrak, bi pabiloi berritzen, Getxo Antzokia, Ollarretxe eta Musika Eskola Algortan; hirigintza suspertzeko lanak Romon; parkea Andramarin. Gobernu bezala ezin dugu dena batera egin. Ez baitugu horretarako kudeaketa-gaitasunik ez eta baliabiderik ere. Zatika ari gara. Romon egin da 2007az geroztik azken hamarkadan egindako inbertsio publikorik handiena. Baina zatika goaz.

Getxoko Udalak Memoria bat du (web orriaren bitartez sar zintezke bertara) eta, bertan, udalerriko bizilagunek eta gizarte-eragileek nola arnasten duten jakiteko irekitako foro sektorial desberdinak agertzen dira. Lan-taldeak ditugu Euskarari, Garapenerako Lankidetzari, Berdintasunean, Ingurumenean eta abar. Kasik Udaleko kudeaketa-eremu guztietan. Espazio horietan, gure politikak gizarte-eragile horiekin kontrastatzen ditugu haiek hobeto orientatzeko.

Udalerritari auzorako nortasuneko hirigintza-proiektu bat aurkezten diogun bakoitzean, prozesu parte-hartzaile bat irekitzen dugu. Egin dugun azken gauza Algortako Ollarretxe kalea izan da. Gure proposamena azaldu genuen, epe bat gaitu, auzoko herritarrei gure hau erabilgarri zutela adierazi eta iradokizunak egiteko zona bat gaitu genuen. Iradokizun horien ondorioz, proiektuak aldaketak jasan ditu. Hori da nortasuneko hirigintza-proiektu guztiekin sistematikoki egiten duguna.

Hauteskunde-programak filosofia bat zehazten du Getxorentzako hirien eta auzoen eredu batekin. Getxorentzako gure ereduak, azpiegiturei eta zerbitzuei dagokienez, zehaztuta dago. Formula hori (Auzoz Auzo) ere entzutekoa da. Esku-hartzeen, gogoeten eta iradokizunen berri jasotzen dugu. Lehenengoa naiz egia eta ezagutza absolutua ez ditudala onartzen. Horretarako gaude hemen. Entzuteko.

Errekaganekoaren berri jaso dugu. Ahal badugu, jorratuko dugu, nahiz eta orain ezin dizudan noiz izango den zehaztu. Premiazko gaiak premiaz jorratu behar ditugu. Galtzada-harri batzuk altxatuta badaude eta arrisku-egoeraren bat sortzen badute, oharra jasotzen dugu nolabaiteko premiaz jardun dezakegun ikusteko.

**Kresaltsu kaleko esku-hartzeari dagokionez, kontuan hartu al dira desagertuko diren 40-60 aparkaleku-plaza? Non sartuko diren pentsatu al da? Bestalde, banatu duten liburuxkan Romo auzoan TAO ezartzeko aukera aztertzen ari zaretela irakurri dut. Zergatik ez da Areetakoa kentzeko aukera aztertzen? Ziur Romon arazo gutxiago izango genituzkeela.**

Idatzian ez da agertzen Udala Romon TAO ezartzea aztertzen ari denik. Esaten dena da Udala aukera hori aztertzen ari dela TAO ezartzea eskatzen ari den hainbat bizilagun Areetako TAOrekin mugakidetasun-eragina jasaten ari denaz jabetzen garelako. Bi konponbide ditugu: edo TAO Romora zabaltzen dugu (bizilagun askok eskatzen duten gisan) edota, TAO kentzen dugu. Esaiezu merkatariei. Izan ere, TAO-k merkataritzari txandaketa ziurtatzeko formula da. Denbora asko ez dela, 15 minutu TAO doan gaitu ditugu, batere TAO-rik ordaindu beharrik gabe iritsi, erosketak egin eta alde egin dezaten eta emaitza onak ematen ari da. Eta merkataritzak eta ostalaritzak eskertzen dizute. Galdera honako hau da Romon TAO sartzea nahi dugu edota orain arte bezala jarraitzea nahi dugu. Santa Ana eta Algorta auzoetan berdina gertatzen da. Beste hainbeste gertatzen da Europako edozein hiritan ere. TAO hirigunean



ezartzeko eratzen da, merkataritza dagoen lekuan eta, gune horretatik abiatuz, gainerako eremuak zona horrekiko mugakidetasunaren arazoa jasaten dute. Romon, aparkalekuak gaitzeko ahalegin handia egin da. Getxoko aparkaleku-parkerik garrantzitsuenetakoa du: Santa Eugeniako aparkalekua; Gobelako polikiroldegiko aparkalekua, Udala kudeatzen ari dena merkatutik kanpoko prezioekin eta bere 280 aparkaleku-plazak beteta dituen; disuasio aparkalekua, trenbide igarotzen zen lekuan, Xake Plazarekin muga egiten zuena (zeina, egunen batean kalea izango den), Leioako Udalarekin akordio batera iritsi ginen putzegilearen eskultura dagoen biribilgunetik hurbil dagoen aparkalekua Romoko bizilagun guztiei irekita egon zedin. Egia da ordaindu egin behar dela.

Jendeak lurpeko aparkalekuak eta doakoak egitea eskatzen du, baina ez dira doakoak. Udal-aurrekontuarekin eraikitako aparkalekuak dira eta, beraz, getxotar guztien diruarekin. Gutxi batzuentzako soilik izango den aparkalekua egingo al dugu? TAO-ri buruzko gogoetak ertz asko ditu eta egoera horri aurre nola egin diezaiokegun begiratzen ari gara. Getxon 39.000 ibilgailuko ibilgailuen parkea dugu eta kaleetan 11.000 aparkaleku-plaza ditugu. Ez da erraza arazoa konpontzea.

Konturatzen gara Kresaltsun aparkaleku-plazak kentzen ditugula. Bai egia da. Eta ulertzen dut jendea horregatik kezkatzea, baina nik uste dut gure auzoetako erdiguneko espazioak bizilaguntzako espazio izan behar dutela. Bestela, autoak guztia hartuko du eta etxera bidaliko gaitu. Oinezkoentzako alderdiek, hasiera batean, kekak eragiten badituzte ere, jendeak bikain baloratzen ditu. Uste dut Romon urrats bat eman genuela (beldurrez beteta) Aurrezki Kutxa kalean eta Gobelondo kalean, baina, egun, auzoak esku hartze horri buruzko balorazio positiboa egiten du. Bizi-kalitatea da. Orekak bilatu behar dira eta ez da beti erraza izaten.

**Egoitzaz hainbeste hitz egiteak ernegatzen hasia nau. Egoitzan sartu ahal izateko, gutxienez, 3 urte egon behar da zain. Egia ez bada, hori horrela dioena gezurretan ari da. Eguneko Zentroak eta Egoitzak Aldundiarenak izan beharko luketela esaten ari gara.**

Ez dakit Egoitzan sartzeko hiru urte itxaron behar dela diozunean datu hori egia den, baina, sinetsi dezaket. Eskaintzen den zerbitzua hain da ona, edozein egoitza pribatutan baino askoz ere hobea, jendeak udal-egoitzara etorri nahi duela. Egoitzen gaian eskuduntza Aldundiarena da eta Aldundiak, egun, Leioan, Portugaleten ematen dizu plaza bat edota, bihar bertan, Barrikan, plazak sobera daudelako. Getxon burutu ezinik gabiltza. Baina Bizkaian plazak badaude, Aldundiak ikaragarritzko inbertsioa egin zuelako egoitzak irekitzeko. Getxok, bere egoitzan, 138 plaza ditu.

**Alkate jauna norenak dira itsasontzi handi horien portuak? Udalak ere inbertitu al du? Zertarako? Dirudunen mesederako?**

Getxoko Udalak ez du euro bat bera era jarri itsas bidaietako itsasontzien portuan. Ezta euro bat bera ere. Ez baita eskuduna. Bilboko Portu Autonomoak egin du. Getxoko Udalak Portu Autonomoarekin lanean dihardu itsas bidaiariak Getxon gera daitezen lortzeko. Horretan bai ari garela dirua gastatzen, baina euro bat adina ere ez itsas bidaietako itsasontzien portuan. Getxoko Udalak kai horretatik ateratzen duen onura bakarra bertara iristen diren itsas bidaiariei onura ateratzeko aukera da, eta badugu, Getxo Euskadira sartzeko aterik onena baita. Horregatik aukeratu dute Getxo. Gure helburua itsas bidaiariak

Getxon geratzea lortzea da, bertan gastatu dezatela eta gure merkatariak eta ostalariak horri etekina atera diezaietela. Merkatariak eta ostalariak lanean dihardugu itsas bidaiariak gure eskaintza osoa helarazteko.

**Amaitzeko beste kontu bat. Kresaltsu kaleko obrak gauzatzekoan, suhiltzaileak Aurrezki Kutxa kaletik sartzeko ez dezatela inolako arazorik izan kontuan hartzea nahiko nuke; izan ere, denbora asko ez dela, sute bat itzaltzera joateko, edukiontzia mugitzen jardun behar izan baitzuten, handik pasatzen uzten ez zirelako.**

Hori bai garrantzitsua dela; oharra jasoko dugu.

**Nagusien Etxea eraikina handi-handia da. Beste hiru solairu altxatuko balira, pisu tutelatuak egin ahal izango lirateke eta, baita, gainerako guztia ere. Oso ondo aprobetxatuko litzateke. Apur bat zaharberritzea baino ez du behar.**

Ez da horren erraza beste hiru solairu igotzea. Eraikina dagoena da, urte askokoa eta neke-itxura ematen duena. Hezetasunak ditu, altxatu egiten da. Ez da horren erraza. Bere garaian, eraikina birgaitzearen kostua ezagutzeko azterketa teknikoak egin ziren eta kostua ikaragarria litzateke. Beti egon ohi da aldaketarekiko erresistentzia logikoa eta atxikimendua. Ditugun diagnostiko teknikoak ditugu eta horien arabera jardungo dugu.

Bilerara etorri izana eskertzen da eta bertaratutako pertsonei fitxa bat ematen zaie egoki irizitako galdera gehigarriekin bete dezaten, zeinak, behar bezala erantzungo diren. Imanol Landa Getxoko Alkateak itzulketa-bilerara etorri izan eskertzen du eta bere atea eta zinegotzienak auzotarrei irekiak daudela gogorarazten du.